



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xendazaletasun atala
136. zka. Gipuzkoako Erdigune Geografikoa	Mandubia-Martirieta/2020-03-14

Xendazale adiskideok:

Bigarren irteera honetan Gipuzkoako Erdigune Geografikora (G.E.G.) joango gara. Alegia, Urola eta Oria arroen erdiko tarteetako lurraldera. Tolosa, Azpeitia, Azkoitia, Zumarraga eta Beasain herriei buruz ari gara. Hain zuzen ere, Mandubiako Bentan dago gure abiapuntua. Pasabide historiko eta estrategikoa, garai batean bidaiari eta erromes ugari igarotzen zen bertatik, hasieratik oso gertu ikus dezakegun Mandubi-zelaiko trikuharriak erakusten duen bezala.

Konturatu baino lehen, Kizkitzako baseliza edo ermita ospetsura iritsiko gara, marinel kutsu handikoa; itsas mailatik 655 m-ra dago, gainalde eder batean. 26 metroko luzera du, eta ia 7 metroko zabalera. Ermitaren ondoan, antzinako tradizioz, itsasargi edo faro bat dago; gaur egungoa, Tarifako portutik ekarri zen, eta 1962an baseliza berreraiki ondoren ezarri zen.

Itsasotik ere igotzen da Kizkitzara eta Itsasoko San Bartolome elizan Gipuzkoako erloju zaharrenetako bat dago (1730. urtekoa). Baina Kizkitzatik beste aldera jaitsi apur bat eta Beotegi tontor txikira igoko gara (728m), handik Azurtza zelaia jaisteko. Berehala iritsiko gara Lizarrietako mendi-lepo eta txabolara, Izazpi mendi-hegalean zehar ibili eta ohiko bideari berriro heltzeko. Horrela, bidegurutze/mendi-lepo garrantzitsu batera iritsiko gara, poste adierazle eta guzti.

Gure bideak aurrera jarraitzen du, desnibel leunekin; Pagolako tontorrera (821 m) igo eta Samiñoren (932m) oinera iritsiko gara, Hirumugarrieta ere deitua, bertan Zumarraga, Azkoitia eta Azpeitia udalerriek bat egiten dutelako. Tontorretik, bista zabalak, nahiz eta ez den mila metrora iristen. Samiño atzean utzi eta berehala, beste kota bat izango dugu eskura (Gurutzetza 928m), eta handik aurrera, jaitsiera leun, eroso eta polita, eta ikuspegi ederrak izango ditugu (Izarraitz, Ernio, etab.) gure helmugarantz (Martirieta).

San Emeterio (San Medel) eta San Zeledonio martiriaren baseliza 430 metrora dago itsas mailaren gainean, Azkoitia Oletarekin eta Zumarragarekin lotzen zuen bide zaharrean. Eraikinak ia 40 metroko luzera eta 11 metroko zabalera du. Barruan 8 margolan daude, San Esteban, Sta M^a Goretti, San Balentin Berriotxo, Sta Zezilia, Sta Luzia, San Sebastian, Sta Ines eta San Tarsiziori buruzkoak.

Animo mendizaleok, natura zain dugu eta !!!

Ibilbidea: Mandubia-Martirieta

Beharrezko denbora	4,45 ordu
Goranzko desnibel metatua	672 metro
Beheranzko desnibel metatua	784 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	14.755 metro
 Ertain 1  Orientazioa 2  Joan-etorria 1  Esfortzu 3	

Irteera-lekua	Bilbo plaza (17/24 bus-geral.) eta Pio XII.aren plaza (24/27 bus-ger.)
Aurkezteko ordua	07:45 (Bilbo Plaza) eta 07:50 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua	07:50 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	XXXXXXXXXX jatetxea
Prezioa	40 euro

Izena emateko azken eguna: 2020-03-12ko 12:00etan

Izen-emateak egiteko: José Ignacio Acuña (joseig15@gmail.com)

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña

